



## **Bazkide Garrantzitsuak**

Gure enpresan lau aliantza edukiko ditugu:

- material hornitzaileekin
- enpresa elektronikoen: MOLD IT eta Throw-it (ekintzaileak)
- informatika arloko enpresarekin
- Garraio enpresa

Material hornitzailearekin aliantzaren oinarria prezioen konpetitibitatea zein eskuragarritasuna izango da: materiala merkeago lortuko dugu, eta gure eskaerei lehenetasuna emango zaie. Horretarako, altzairu herdoilezin zein burnia hornitzen dituen enpresa batekin kontaktuko dugu.

Enpresa elektronikoen hurrengoa izango da tratua: urte batean instalakuntza egiteaz gain, formazioa eskainiko digute beraien zerbitzuen barruan. Modu horretara, Usagarreko langileek izango dute iada elektronika arloko lanak egiteko formakuntza nahikoa. Hortik aurrera, materiala hornitzeaz bakarrik arduratuko dira enpresa hornitzaileak. Hala ere, eskakizun puntualak ere onartuko dira, beraien laguntza eskatzen dutenak.

Enpresa informatikoari dagokionez, Usagarrek eskainitako produktuaren oinarria da. Eskainiko dugun produktuaren oinarria den programa informatikoa beraien diseinatuko dute.

Garraio enpresa batekin aliantza edukiko dugu gure produktua entregatzeko eta prezio hobeak edukitzeko.